



198. zenbakia

· EKAINA 2020 ·

pulunpe



Anue, Atetz, Basaburua, Imotz, Lantz, Odieta eta Ultzamako aldizkaria

ARGITARATZAILEA AMETZA KULTUR ELKARTEA

PULUNPE SAREA

Euskara Zerbitzua, Gurutze, Edurne, Laia, Ainara, Patxi, Goizargi, Inma, Izaskun, Maitane, Alicia, Bakartxo, Iñigo, Irantzu, Josu, Arantxa, Iñaki, Jese, Maika, Asier, Facebooken parte hartzen duzuenoi, etab... barkatu aipatu ez zaituztegunoi.

EMAILA

pulunpe@gmail.com

ZENBAKI HONETAKO KOLABORATZAILEAK

Sareko taldekideez gain, Txurdan, Lurra eta Patxi Irurtzun.

KOORDINATZAILEAK

Garazi Zabaleta eta Itziar Perez

TIRADA

1.700 ale

INPRIMATEGIA

Gertu

MAKETAZIOA

Zas Komunikazioa

AZALEKO ARGAZKIA

Egun Eroren agurra

LEGE GORDAILUA

NA 721/93

Inprimategira uztailearen 7an bidalia



JOXE JABIERREN IPUINA

Egiazkoa izan zitekeen ipuina

“ Ohi bezala, alegia, egunero egiten zuen moduan, bordatik zetorren “gure gizona” aspaldiko Renault 4 horian. Auto egokia, aproposa zen, pistetan barrena ibiltzeko eta pentsu edota axuriren bat garraiatzeko ere bai. Bat-batean... hori sustoa! Bide erdian jarri eta, bi gizonak uniformeaz jantzita, besoak altxatuz geldiarazi zuten; gizona polizia autoaz ez zen ohartu ere egin. Izan ere, urteen poderioz edo, “despisteak” ugaritzen zihoazkion. 80 urte inguru zituen. -Nondik heldu eta nora zoaz?- galdetu zion batek. -Bordatik nator eta baserrira noaie. Azienda ikustetik heldu naiz.

-Ez zara zize bila ibiliko?-

Besteak ironikoki.

-Hau katxarroa! Eta gurpil horiek?- Besteak. Gure gizonak ez zuen ihardetsi.-Gurpilei buruz galde egin dizut, egoera txarrean dira, ulertzen? Edo nahi al duzu ingeleraz esatea? -Ulertu dut bai, eta ingeleraz ere badakit, nahi izanez gero.

Jakina bazekiela! Hainbat urtetan Kalifornian artzain aritu baitzen.

Bi uniformedunek elkarri begiratu eta...

-Segi, alde!- Gure gizonak:

-¡Que tengan buen día!

Have a nice day!

Eta etxe aldera abiatu zen.

Bai goxoak ekarri zizkigun zizak!

“

Joxe Jabier Elizalde



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra



Zarrantz Alejandro Mingot Clement

“Bizitzeko bailara zoragarria iruditu zitzaigun Imotz”

Jaiotzez Alacantekoa da Alejandro Mingot Clement, baina Bartzelonatik iritsi zen Imotza duela hamar bat urte. Emaztea eta biak musikariak dira: bata Donostiako kontserbatorioan egiten du lan, eta besteak Iruñekoan. Erdibideko zerbaiten bila ari zirela topo egin zuten Zarrantzko Luxeneko bordarekin, eta maiteminduak gelditu ziren. Borda erosi eta bertan bizi dira geroztik.

• ZERGATIK AUKERATU ZENUTEN ZARRANTZ BIZITZEKO?

Gure lantokien erdibidean zegoen zerbaiten bila hasi ginen zonalde honetan eta Luxeneko borda ezagutu genuen hemen, Zarrantzen. Bailara zoragarria iruditu zitzaigun, jende jatorra... Eta aldi berean, argi genuen landa eremuan bizi nahi genuela asko gustatzen zitzaigulako eta bizi kalitate hobea dagoelako hiriarekin alderatuta.

• EUSKARA IKASI DUZUE?

Hitz egitea gehiago kostatzen zait, baina ulertu gehiena ulertzen dut. Denbora daramat euskara ikasten, hasieran hemengo euskaltegian hasi nintzen, baina orain azken aldi honetan telematikoki ari naiz. Gustura ari naiz eta oinarritzko maila atera berri dut. Hona bizitzera etorri baino lehen ere bagenituen lagun euskaldunak eta betidanik piztu izan du nire interesa hizkuntza horrek. Orain, gainera, lau urteko semea Jauntsarasko eskolan ari da ikasten eta euskaraz ederki egiten duenez, pentsatzen dut orain berarekin pauso gehiago ematea ere errazagoa izanen dela.



Argi genuen landa eremuan bizi nahi genuela, bizi kalitate hobea delako



• MUSIKARIAK ZARETE BIAK. ZER EGITEN DUZUE ETA NOLA ERAGIN DIZUE KORONABIRUSAK?

Jazz musikan ari gara, eta batetik bestera mugitzen gara, hainbat taldetan jotzen dut nik. Hori da, nolabait, alde artistikoa. Baina heziketaren alorra ere hor daukagu: ni Donostiako Musikenean ari naiz lanean, eta emaztea, berriz, Nafarroako Kontserbatorioan. Koronabirusak eragindako egoera honetan, guk zortea izan dugu irakaskuntzan ere lan egiten dugulako. Baditugu lagunak alde artistikoari eskainiak erabat, eta oso egoera zailean

gelditu dira: festibal guztiak bertan behera gelditu dira eta diru sarrerarik gabe daude oraintxe, eta etorkizunak ere itxura nahiko beltza du...

• NOIZTIK ZARA PULUNPE BANATZAILEA, ETA ZERGATIK HASI ZINEN?

Egoerak horrela eskatzen zuelakoz hasi nintzen. Orain, Zarrantzko alkate ere arrazoi beragatik naiz. Aldizkariak bildu, herrira igo eta banatzeaz arduratzen naiz. Zortzi etxe gara Zarrantzen, baina urte guztian bizitzen hiru etxetakoak gaude bakarrik.



▲ Musikaria da Alejandro Mingot



Eskualdeko gaztagileak

Zailtasunekin, baina krisiari ahal bezain ongi erantzuten

Sektore guztietan ari dira azken hilabeteotan koronabirusak eragindako egoera zailak bizitzen: ERTEak direla, enpresa eta negozio txikien ixtea dela... lehendik zailtasunekin ari ziren askori are zailago jarri die krisiak aurrera jarraitzea. Egoera honek gure eskualde zabaleko gaztagileei nola eragin dien jaso nahi izan dugu Pulunpe honetan. Jakinik martxo eta apirilekoa urteko garairik garrantzitsuena dela beraientzat, gaztak ekoizteko momentua delako.

Dorrea Gaztandegia – Udabe (Basaburua)

Mikel Martiarena Barkaiztegi, kudeatzailea

"Gure eguneroko lan egiteko moduan eta merkatuaren funtzionatzeko moduan eragin digu koronabirusak. Lan egiteko moduari dagokionez, denok bezala, guk ere protokolo berriak jarri behar izan ditugu martxan. Gu ez gara artzainak edo gaztandegi txiki-txiki bat, hemen hogeitaz langile gara. Baina nik beti esaten dut benetan 200 garelako, zeren hemengo langileez gain Euskal Herri osoko 175 artzainei hartzen diegu esnea. Gurea oinarritzko jarduera zenez, ez gara inongo momentutan gelditu, eta gainera kontu guzti honek gure ekoizpenean lan gehien dagoenean harrapatu gaitu: martxoa, apirila eta maiatzaren. Kontingentzia plana jarri behar izan genuen martxan: hiru langile kanpoan gelditu ziren

besteok gaitzagatik etxera joan behar izango bagenu beraiek lana aurrera ateratzeko. Orduan, inoiz baino lan karga handiagoarekin eta langile talde murriztuarekin aritu gara: kontingentzia planagatik, eta koronabirusagatik izan ditugun bi bajengatik".

"Beste kontu bat da merkatuarena: gure negozioa ez da gazta egitea soilik, saltzea ere bada. Saltzen ez baduzu, dirua inbertitzen ari zara eta ez duzu bueltan jasotzen. Gure salmentak apirilean %30 jaitsi ziren, eta maiatzaren %17. Azaro-abendu inguruan jakinen dugu urtea nola joan den, baina beldurra, denek bezala, badugu: urte bukaeran espero baino salmenta txikiagoak egitearena. Guk artzain guztiekin hitz egin genuen eta denei eskatu genien beraien bolumenak jaisteko, eta artzain bati hori eskatzea oso zaila da, hori baita beraien soldata. Baina ez dakigu zer gertatuko den".

Ekollaondo ahuntz gazta – Goldaratz (Imotz)

Josean Iturralde, ekoizlea

"Duela hiru bat urte hasi ginen egonkortzen eta produkzio polit bat ateratzen, eta urtez urte pixkanaka handituz goaz, baina aurrean justu ahuntzen erditzea okertu zitzaigun, arazoak izan ditugu eta ahuntzen %30 inguru gaizki umatu ziren. Beraz, produkzioa jaitsi egin zaigu, koronabirusaren egoeraz gain beste galera hori ere tokatu zaigulako".

"Ahuntzak, ardiekin alderatuta, bero gehiago behar du hotza baino, eta horregatik beraien umatzea martxoaren hasiera inguruan izaten da. Justu orduan iritsi zen koronabirusaren kontua, gu hor hasi ginen gazta ekoizpenarekin eta, beraz, alde horretatik ez dugu gure salmentan hainbeste nabaritu".

"Orain bai, hiru hilabete pasatu ondoren azoka gabe gaude, eta honezkero saltzen egon beharra genuen. Guk produktuaren zatirik handiena zuzeneko salmenta bidez ateratzen dugu, dendetan eta ostalaritzan hasiak gara baina oraindik oso gutxi saltzen dugu bide horretatik. Azoka garrantzitsuenak udazkenean pilatuko dira, eta bitartean salmenta pixkanaka joanen dela pentsatzen dugu. Gaztak behar bezala mantentzeko ontziratzen ari gara, eta ikusiko dugu urte bukaerarako nola joan den salmenta".



Dorrea gaztandegiko Mikel Martiarena



Ekollaondoko Joxean Iturralde ▼



Juanbeltz Gaztandegia – Beruete (Basaburua)

Asier Juanbeltz Astiz, familia-enpresako kidea

“Denei bezala, guri ere eragin digu koronabirusaren krisiak, baina egia da produktuari aterabide bat ematen behintzat ari garela. Gure bezeroetako asko denda txikiak, harategiak eta halakoak dira, eta haiek lanean segitu dutenez eta normalean baino gehiago saldu dutenez, beste esparru batzuetako salmentak konpentsatzea lortu dugu. 700 bat buruko artaldeak dugu guk, urtez urte handitzen joan garena. Beste garai batzuetan gure esneaz gain kanpotik esne kantitate handiagoak erosten bagenituen ere, orain egoera dagoen bezala, guk ekoizten dugun esnearekin soilik ari gara gaztak egiten”.

“Sagardotegi garaian herrian mugimendu handia egoten zen: sagardotegietan bertan gure gaztak ematen zituzten eta handik jende asko etortzen zen etxera gaztak erostera ere, lotura hori bazegoen. Eta horretan bai, asko nabaritu dugu. Baina

gutxi gorabehera salmentak mantentzea lortu dugu eta ez da gutxi! Zuzeneko salmenta bakarra egingo bagenu oraintxe askoz okerrago egon ginen: salbatu gaituena, esan bezala, dendetan eta harategietan dezente saltzea izan da”.



Juanbeltzeko Asier Juanbeltz ▲

Tia Maritxu gaztandegiko Maria Zilbeti ▼



Maria Zilbeti – Olague (Anue)

Tia Maritxu gaztandegiko ekoizlea

“Urtarrilean abiatu nuen gaztandegi proiektua, eta martxoan geldialdi orokor honekin topatu naiz. Lehen erabakia esnea erosteaz uztea izan zen, gaztak nire artaldetik ateratzen nuenarekin soilik egiteko. Ez nuen hozkailuak erritmo horretan betetzen segitu nahi gazta salmentarik egongo ez bazen. Bigarren erabakia loteak osatu eta gaztak etxeetara saltzea izan zen, jabetxeak itxita baitzeuden eta dendek ere gaztak eskatzeari utzi zioten. Salmenten bilakaera deseskaladaren ispilu izan da: etxeetako salmentak orain behera egin dute dendetan eta jabetxeetan gora egin duten bitartean”.

“Orain arazorik handiena bizi dugun ziurgabetasun egoera da: inork ez daki zer gertatuko den epe laburrean ere, eta horrela oso zaila da zenbat ekoitzi kalkulatzeko. Gaztak ontzeko denbora behar du, gainera, ez da egun batetik bestera egiten saltzera ateratzeko. Denbora honetan ez dut laguntza bakar baterako sarbiderik izan, eta gaztandegi bat martxan jartzea kostatzen den guztiarekin, gainera, ez dut planteatu ere egin. Dena dela, administrazioetik laguntzeko modu asko daude, eta horietako bat bera ere ez zait iritsi”.



iritzia



Vascantabrioja - Angel Erro,
Berria

Vascantabrioja

2020ko ekainak 13

Gorrito diozun horrek zutaz paso egiten duela egiaztatzea ez da esperientzia xamurra. Horregatik penatuta nago UPN Eusko Jaurlaritzak Nafarroa bereganatu nahi duelako teman ikusita. Aste honetan bertan txio bat zabaldu dute, espantuka, nafar sozialistek ETB3 Nafarroa osoan ikusteko aukerari bide emanen omen diotelako. Teleberriren aurrean irudikatzen ditut (gorrotoa elikatu behar delako) suminez beteta, hirugarren fase honetan EAren ondoko erkidegoen mugak irekitzearen inguruko notizietan Nafarroaz hirugarren postuan hitz egiten dela ikusita (ez dagoelako EAekin mugakidea den laugarren autonomia erkidegorik). Iparraldeaz hitzik ez. Aitortu behar dut ni neu ere ezustean harrapatu nauela Kantabriarekiko jaidurak eta euskal lurraldetasunarekiko ezaxolak. Agian egia da epidemiak ageriagoan utzi dituela benetako lehentasunak. Lasai egon daitezke beldurtiak, nazio eraikuntza ez doa batzuek uste zuten ildotik. Ez du euskarak herria eraikiko. Bigarren etxebizitzek baizik. Azkenean errentagarriagoa eta erosoagoa izan daiteke Comunidad Vascantabrioja baten alde indarrak batzea. Ez nau nafar gisa kontsolatzen euskarafoboek oina galgatik altxa lezaketela pentsatzeak. Gorrotoa beti izan da beren buruari.

*Euskara
errazeko
artikulua*

Inposatutako mugen aurka, Mexikortxoren kontzertua Izpe- giko gainean

Erratzu eta Baigorri artean kontzertua eskaini zuen maiatzaren 30ean Basaburuko Mexikortxo bandak, Izpegiko **gainean**. Nafarroa Beherea eta Garaiaren arteko muga inposatuak salatu eta Euskal Herria muga horiez **gaindi** eraikitzeko beharra aldarrikatu zuten.

Mugen bi aldeetako lagunak batu ziren Izpegiko ekimenera eta eguraldi eta giro paregabea izan zuten lagun. Mexikortxo taldearen kontzertuaz gain, Xabier Silveira eta Elixabet Etxandiren bertsoak eta dantzak ere izan ziren mugaren bueltan. Umorez eta kantuz, Euskal Herriaren zatiketa eta koronabirusarekin mugak itxi izana salatu zuten bertaratutakoek.

Esan Erranen izan genituen taldeko kide diren losu Jauregi eta Eneko Yurramendi ekimenaz hizketan. Haiek azaldu zigutenez, koronabirusak mugetan eragindako egoera absurdoa irudikatu nahi izan zuten: "**Badirudi** ahaztuta genuela muga zoro hori, baina koronabirusaren kontu honekin berriz gogorarazi digute hor dagoela. Ekimen honekin salatu nahi izan dugu Erratzuko bat Tuterako batekin elkar daitekeela, baina aldiz ez Baigorriko batekin, bi herriak ondo-ondoan egonda. Absurdoa da. Eta absurdo hori irudikatzeko, lau mexikar han goian!", kontatzen zuten erdi barrez.

Hiztegia

Gaina: cima

Gaindi: más allá de

Badirudi: parece que



Giro bikainean aldarrakapena eta festa uztartu zituzten Izpegiko gainean ▲



Euskara errazeko artikulua

Haurrendako eta gazteendako udako jarduerak antolatzen ari dira

Eskualdeko udalek udan ere euskaraz egiteko aukera eskaini nahi dute. Aurten inoiz baino beharrezkoagoa da; alde batetik, udalekuen eskaintza nabarmen murriztu delako; bestetik, ikasleak martxotik daramatelako eskolara joan gabe eta irailera arte ez dira itzuliko. Haur eta gazte askorendako eskola da euskaraz egiteko gune bakarra. Beraz, horregatik ere, hizkuntza arrakala txikitze helburuarekin ari dira ekintzak antolatzen.

Oraingoz, Basaburuko udalak eskaini du izena emateko aukera: uztailera azken astean eta abuztuko lehendabizikoan egingen dira jarduerak. Bi talde egiteko asmoa dago: astelehenetik ostiralera, Aizarotzen, 10:00etatik 14:00etara. 4 eta 12 urte bitarteko umei zuzendu diete eskaintza.

Bestalde, nahiz eta oraindik eskaintza zehatzik ez dagoen, Odietan ere aukerak aztertzen ari dira".

Hiztegia

Arrakala: Brecha. Adibidez: hizkuntza arrakala (brecha lingüística), soldata arrakala (brecha salarial)

Eskaintza: Oferta

Jarduerak: Jornadas; actividades.



CAMPING - KANPINA

IZARPE

ULTZAMAKO ATEA - PUERTA DE ULZAMA

ESKATU ERAMATEKO JANARIA

Oilasko errea patatekin 13,90€

Paella errazioak 9,5 €

Pizzak, Hanburesak...



eta.... Ostegunero
8ak aldera Pintxo Pote



Eguneko Menua
Asteburuko Menu berezia
Pizzak, Hanburesak
Plater konbinatuak
Paellak....
eta askoz gehiago



Ultzamako Udalak Lizasoko radarraren bidez jarritako isun guztien dirua itzultzea ahalbidetuko du

Maiatzaren 21eko Udal Batzarrean, abiadura handiegian joateagatik jarritako 18 isunen itzulketa egiteko prozedurari ekitea onartu zen. Akordioa Nafarroako Kontseiluari helarazi zaio itzulketa egin ahal izateko txostena egin dezan. Beste batzar batean gainontzeko isunetatik jasotako dirua itzultzea onartuko da.

Ultzamako Udalak ohar batean adierazi duenez, 2018an Lizasoko Kontzejuak bide segurtasun arazo bat zegoela helarazi zion. Udala haiekin bildu zen, eta aukera ezberdinak aztertu ondoren, epe motzera irtenbide hoberena radardun auto bat jartzea zela erabaki zuen. "Alde batetik, gidarien abiadura jaisteko asmoa zuen, eta bestetik, arazoaren dimentsioa neurtzekoa. Aldi berean, isunetatik zetorren dirua bide segurtasunean inbertsioak egiteko erabiliko zen."

Oharrak dioen bezala, "isunak jasotako batzuek, zigorraren aurrean errekurtsioa jartzeko eskubideari heldu zioten; beste batzuek, baimendutako abiadura muga gainditu izana onartu eta zegokiena ordaindu zuten haien kabuz".

2019ko abuztuan, Nafarroako Administrazio Auzitegiak helegite bati eman zion arrazoia, eta gerora beste pare bati. Horren arabera, udalak ez du eskumenik Lizasoko bidean jarduteko. Eskumena Nafarroako Gobernuak du, eta udalarekin horretarako hitzarmenik ez duenez, auzitegiak arrazoia eman die isuna jaso duten herritarrei. "Udalak eman dituen pausoak beti teknikari juridikoekin

kontrastatu badira ere, Nafarroako Administrazio Auzitegiak arrazoia eman zien errekurtsioa jarri zutenei", adierazi du udalak oharrean.

Beraz, errekurtsioa jarri duten 18 horiei isunaren dirua itzultzeko prozedura abian jarri du honezkero Ultzamako Udalak. Hurrengo batzar batean gainontzeko isun guztiak itzultzeko prozedurari ekitea ere proposatuko da.

Radardun autoa erabiltzerik ez dagoenez, Lizasoko kontzejuak ibilgailuen abiadura adierazten duten bi panel jarri berri ditu herriko sarreretan, Lizaso zeharkatzen duten automobilien abiadura moteltzeko asmoz. Abiadurak segurtasun arazo bat izaten jarraitzen baitu, herritarren ustez.



Abiadura adierazten duten panelak jarri dituzte Lizasoko irteeran eta sarreran ▲

Sute bat izan zen ekainaren 2an Itsason



Sutea Itsason ▲

Baimendutako erreketak batetan sortutako sutea izan zen, arratsaldeko 16:00ak inguruan. Suhiltzaileek erraz kontrolatu eta sutea itzali zuten.

16:00ak inguruan gertatu zen ezbeharra. Pinuak bota ondoren, adarrak erretzen ari zen herritar bat baimendutako erreketak batean, eta eguerdiko eta arratsaldeko beroaren eraginaz suaren kontrola galdu zuen. Herritarrek berak deitu zituen suhiltzaileak eta horiek berehala itzali zuten sutea. Foruzaingoak ere hurbildu ziren Iruñea eta Altsasutik.



Karrikak konpondu dituzte Etxalekun

Aspaldian nahiko hondatuak zeuden karrikak konpondu ditu Etxalekun Ihabengo Lakita enpresak. Karrikak zuloz beteta zeuden, eta diru-laguntzak jasotzeko atera beharreko plan trienala oraindik martxan ez zegoela ikusita, kontzejuko juntako kideek konponketak beste modu batean egitea pentsatu zuten: kontzejuak Udalarekin lehendik zuen zorraren zati bat ordaindu eta gero Ihabengo enpresari aurrekontua eskatu zioten, eta Udalak onartu egin zien. Horrela, Udala izan da konponketen gastuak ordaindu dituen.

Azken urteetan festa aurrean tapatzen zituzten karriketako zuloak, baina nahiko azalekoa izaten zen lana: "Ez zuen gehiegirako balio izaten, denbora gutxian berriz ere harrotzen ziren eta", azaldu digu Idoia Astiz juntako kideak. Horregatik pentsatu zuten errepideetan egiten den moduko petatxuak eginez txukunago geldituko zela lana eta gehiago iraunen zuela: zuloak neurtu, moztu eta ongi tapatu dituzte oraingoan.



Errepideetako partxeen antzekoak jarri dituzte karriketan ▲



Zurezko Tallak

— ESKUZ EGINDAKOAK —

Tailuzko eskulan desberdinak / *Todo tipo de trabajos en talla*

Etxeen izenak / *Nombres de Casa*

Eguzkiloreak / *Cardos de Brujas*

Ongietorriak / *Bienvenidas*

Esekilekuak / *Percheros*

Armarriak / *Escudos*

Ikastaroak / *Cursos*

— MIKEL OKIÑENA [ETXALEKU] —

618 3520 14 [WHATSAPP] - geroarte@gmail.com



Xole Erbitiren biografia, Eusko Jaurlaritzak bultzatzen duen Bidegileak bilduman

Azken lau argitalpenak kaleratu ditu bildumak, eta horien artean, Xole Erbiti Arbillaren biografia. Nafarroako lehen euskara teknikaria izan zen Erbiti, eta Alberto Barandiaran Amillanok idatzi du ilarregitarrari buruzko liburuxka.

Bidegileak bilduma Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Politikak sortu zuen 1987. urtean eta 33 urte eta gero bere ibilbidea amaitu du. Euskararen alde lan egin dutenak omentzea eta ezagutzera ematea izan da Bidegileak bildumaren helburua. 200 biografia baino gehiago argitaratu dituzte urte hauetan guztietan, eta ibilbidea amaitu du, orain, azken lau biografia horiekin. Ekainaren 17an, Donostian, ekitaldi batean aurkeztu zituzten eta han izan zen Xole Erbitiren familia.

Xole Erbiti, 2009an zendu zen Ilarregiko alaba, irakaslea izan zen Berueten, Nafarroako Gobernuan lan egin baino lehen. Julia Fernandez Zabaleta, Montessori pedagogiaren jarraitzaileak eta euskaltzale sutsuak piztu zion euskararekiko eta irakaskuntzarako kontzientzia. Besteak beste, Hezkuntzako euskara atalean irakasleendako ikastaroak antolatu zituen.



Xole Erbiti Arbilla ▲

Andrea Aldaregia imoztarra, ETB1eko 'Plazandreak' saioan

Uztailaren 3an hasita, ostegun gauero, Plazandreak saioa eskainikodute ETB1en. Hamalau emakumezko eta bi gizona zeko parte hartuko dute saioan. Lau taldetan banatuta (entrenatzailea eta hiru jokalarik) kantxan dakitena erakusteko bilduko dira. Tartean izanen da Latasako Andrea Aldaregia.

Andrea Aldaregia, Olatz Ruiz de Larramendi eta Naroa Agirre pilotariek batera Erlantz Gartziaren esanetara arituko da.

Pilotariek hiru partida jokatuko dituzte, pilota mistoa erabiliz: lehendabizikoa eskuz banaka, binakako bat hamabi tantotara eta eskuz banakako beste bat. Emakume pilotariek euren trebezia erakustea da saioaren asmoetako bat.



Andrea Aldaregia San Ferminetako txapelketan ▲



Zaldiak eta rapa, emakumeen ahalduntzerako tailerra Beramendin

Uda honetarako ekimen ugari ari da martxan jartzen Beramendiko Katuka elkarteak, eta proposamen berezi batekin datoz oraingoan: rap-a eta zaldiak uztartuko dituzte ahalduntze feministarako. La Furia rap kantari nafarrarekin batera jarri dute ekimena abian, eta helduendako eta haurrendako saioak egingen dituzte.

Beramendin egingen dituzte bi eguneko tailerrak: Katuka Elkarteko Katak zaldiekin ekintzak zuzenduko ditu, animalioek ezagutzeko jolas eta dinamikak proposatuz. "Saio horiek gure behorrekina eta zaldiekin hartu-emanerako espazioa eskainiko digute, aldi berean gure emozioen munduan ere sakonduz", dio dinamizatzaileak. Furiak, berriz, rap tailerra dinamizatuko du: Hip Hop-aren historian eta erreferenteetan murgiltzeaz gain, rap sorkuntza indibidual eta kolektiboan ere arituko dira parte hartzaileak.

Data ezberdinak jarri dituzte tailerrean izena ematen dutenen artean erabakitzeko: helduendako uztailaren 25 eta 26ean edo abuztuaren 29 eta 30ean, eta haurrendako uztailaren 23 eta 24ean edo abuztuaren 27 eta 28an. Goizean eta arratsaldean egingen dituzte tailerrak, eta ordu libreetan inguruaz eta elkarrez gozatzeko aukera izanen dute parte hartzaileek. Informazio gehiago nahi duenak mimosa@mimosabulegoa.com helbidera idatzi dezake.

Zaldi heziketa eta coaching-a ere martxan

Aurreko urteetan bezala, zaldi heziketa ikastaroak eta zaldiekin coaching saioak ere antolatuko dituzte aurtengo udan Katuka Elkartean. Coaching saioak uztailaren 10, 11 eta 12an izanen dira, eta Anná Alvarez izanen da dinamizatzailea. Zaldi heziketa ikastaroari dagokionez, berriz, Vanesa Ugarte izanen da hezitzailea eta abuztuaren 14, 15 eta 16an egingen dute. Guztia, Beramendiko Katuka Elkartean.



▲ Katuka elkartearen eta La Furia rap abeslariaren elkarlanetik sortu da ekimena



KUDEA>Go!

Eskualdean autoa partekatzeko proiektua

Landa eremuko herri eta eskualdeen ohiko arazoa izaten da garraio zerbitzu publiko eskaintza txikia dutela eta batetik bestera mugitzeko autoa erabiltzea beharrezkoa dela. Gure eskualdean ere gauza bera gertatzen zela ikusita, Aizarozko (Basaburua) Patxi Mirandari ideia bat bururatu zitzaion duela sei urte: zergatik ez mugikortasun konpartiturako egitasmo bat Martxan jarri? Autoa partekatzeko talde bat abian jarri zuen orduan proba gisan, eta urteotan egitasmoak izan duen arrakasta eta erantzun ona ikusita, herritar guztiei zabaltzeko asmoa dute orain.

Sei urtean partekatutako 3.285 joan-etorri

Autoa partekatzeko sortu zuten talde horretan parte hartu dute gure eskualdeko 60-70 pertsonak. Miranda izan da talde horren administratzailea, eta denbora honetan egon diren eskaeren eta bidaien kontaketa egin du berak. Ibilbidea partekatze eskaerei dagokienez, 4.380 izan dira. Eta eskaera horietatik 3.285 izan dira aurrera eraman diren bidaia partekatuak. Ez da gutxi gurea bezalako eskualde txiki baterako, ezta? Bada, Mirandak urteotako bidaia partekatuok zenbat CO2 isurpen ekidin dituen kalkulatu du: 14.782,5 kg CO2 gutxiago isuri dira atmosferara.

Emaizta on horiek eskuetan, mugikortasun konpartiturako plataforma digitala sortzeari ekin zion Mirandak, egitasmoa hobetu eta eskualdeko jende guztiari zabaltzeko asmoarekin: "Datu erreal eta harrigarri horiek oinarri, kontuan hartuta Europako Parlamentuak larrialdi klimatikoari aurre egiteko eskaria egin diela gobernuei eta gizarteari, pertsonen zerbitzura jartzeko plataforma digitala lantzen hasi nintzen", azaltzen du egitasmoaren bultzatzaileak.

Landa eremuari dagozkion hiru alderditan izanen du eragina

sortzen ari den plataforma berriak: ingurumenean, despopulazioan eta batetik bestera mugitzeko aukera berdintasun ezean. Komunitatearen kohesioari begira eta alderdi sozioekonomikoari begira ere egitasmoak onurak ekar ditzakeela uste du aizaroztarrek. Erabiltzaileek, gainera, ez dute inongo hartu-eman ekonomikorik plataforma honetan.

KUDEA>Go! plataforma, hemendik gutxira deskargatzeko moduan

Plataforma berria garatua du Mirandak, eta Apple Storeren balidazioa jasotzeko esperoan dago elkarriketa egin diogun momentuan. Behin hori lortuta, Play Storeren balidazioa ere eskatuko dute, eta denbora tarte txikian

aplikazioa deskargatzeko eta erabiltzen hasteko moduan izanen dela aurreikusten du garatzaileak.

Tresna denendako eskuragarri dagoenean eskualdeko herritarrek erabiltzea besterik ez da geldituko. Izan ere, horrelako proiektu batek arrakasta izan dezan nahitaezkoa izanen da beraien parte-hartzea.

Mugikorrean aplikazioa deskargatu eta bidaia elkarbanatu ditzakete herritarrek



VI. ARGAZKI LEHIAKETA



LOREA BASTERRETXEA – Argazki lehiaketako irabazlea "Ardi jeztea eta ile moztea"

1. SARIA: 300€

2. SARIA: 200€

3. SARIA: 100€

Ametza Kultur Elkarteak VI. argazki lehiaketa antolatu du

Hemen bizi den edozeinek hartu dezake parte eta originalak igortzeko epea irailaren 15an bukatzen da.

Aurten ere fotografia gaia zabala da, baina zerbait mugatu dugu. Pasaia soilak ez dira onartuko. Jendea, bertako lanak, kirolak...denetatik, baina paisaiak soilik ez.

Baldintza plegua amezti.eus webgunean

Lekua: Betiko tokietan (Apeztegiberria eta Larraintzarko kultur etxeko ostatua)



Eskola, itxialdian

Familiak eta irakasleak, elkarlanean, oinarria

Martxoaren 12an, ostegunarekin, izan genuen eskolak itxiko zirenaren berri. Larraintzarko ikastetxean ere albisteen bitartez jakin izan zuten, eta egun batetik bestera lan egiteko modua aldatu behar izan zuten, arrapaladan. Azterketa gairak dituela uste du zuzendaritzak; eta, argi du, bikain bat merezi dutela Familiek. Heldu den ikasturtea nola hasiko den ez dago argi oraindik. Bitartean, aurtengoa aurrera ateratzea lortu dutela uste dute.

Patxi Moreno, zuzendaritza

"Telebistaren bidez jakin genuen. Ostiralean, larunbatean eta igandean goizeko bederatzietatik gaueko hamar arte lan egin genuen, astelehenean bertan klaseak nola eman asmatzeko eta harremanetarako kanalak asmatu eta kudeatzeko. Oso eskertuta gaude familiek eskaini diguten laguntzagatik, haien erabateko inplikazioa funtsezkoa izan baita dena aurrera eraman ahal izateko.

Zuzendari moduan zorte handia izan dut, alboan ditudan taldekideak oso prestatuta eta konprometituta egon direlako. Bata teknologia berrietan oso jantzia, besteak familien egoera bereziak bikain ezagutzen ditu, eta hirugarrenak egoera desberdinak planifikatzeko gaitasun itzela dauka.

Ikastetxean genituen ordenagailu eramangarriak eta chromebook-ekin arazo gehienak konpondu genituen. Familiei galdetu genien eta ez zituztenei banatu genizkien. Dena den, zonalde honetan dagoen arrakala digitala beste era batekoa da. Herri eta auzo askotan ez dute zuntza optikorik, eta beste leku askotan internet konexioa oso eskasa dute. Baina herri batzuetan arazo larriari aurre egin diote; Gaskuen, adibidez, herri mailan oso azkar mugitu ziren eta oso konexio txarra izatetik askatu dira betiko.

Ikasleak 5 hilabetez ikastetxera etorri gabe egongo dira. Eta ez dugu ahaztu behar ikasle askoren kasuan ikastetxea dela euskaraz aritzeko eremu bakarra. Horregatik Hizkuntza Proiektuan dauden irakasleek datorren urteari begira jarduerak batzuk prestatuko dituzte".

HH -Itziar Barberena



"Familia bakoitzak bere egoera pertsonala izan du, eta gu saiatu gara ulertzen eta laguntzen.

Seme-alabak etxean, pandemiaren eragina, eta, gainera, gure proposamenak jarraitu beharra zituzten. Egin behar asko dira. Gure helburua ikasleekin eta familiekin kontaktuan jarraitzea izan da. Nola sentitu diren jakitea. Ulertuak eta babestuak egotea izan da garrantzitsua.

Umeek beraien artean erlazionatzeko jolasa erabiltzen dute. Jolasen bidez haien emozioak eta bizipenak islatzen dituzte. Orain lagunekin harremana berreskuratzeko unea ailegatu da".





LH -Josune Gago:



"Lan egiteko modua ezberdina izan da lehen eta azken mailetan, plataforma edo aplikazio ezberdinak erabili baitira. Adin bakoitzera ahalik eta hobekien moldatzea eta lana erraztea zen helburua. Autonomia aldetik azken mailetan errazago moldatu dira, baina hala ere, ohitzeko lan izugarria egin behar izan dute. Txalotzekoa benetan egindako esfortzu guztia!!

Dударик gabe erreferenteak familiak izan dira. Tutoreak etengabe aritu dira familiekin harremanetan eta lanak ikasleen mailara egokitu dituzte, lan pertsonalizatuak eginez. Baina dudarik gabe oinarria familiak izan dira. Ikasleen, gurasoen eta irakasleen laguntzaz, denak, elkarrekin lanean, lortu dugu ikasturtea aurrera ateratzea".

DBH-Elixabete Aranburu:



"Ikasleendako lehenengo astea gogorra izan zen: arazo teknikoak, online plataforma batera egokitzea, antolakuntza, lan karga eta imajinatzen ahal diren egoera guztiak jaso genituen, senideren bat isolamendu egoeran edukitzea barne. Zaharragoak izateak autonomia gehiago ematen die zalantzarik gabe. Dena den, ez da erraza izan beraientzat: nerabeak dira eta beraien parekoekin kontaktua behar dute.

Ikasketek gizartean duten garrantzia agerian gelditu da. Jokoa ez da nota bakarrik egon; ikasleek ikasten jarraitzea izan da helburu nagusia. Zentzu horretan irakaskuntza gizarte osoaren oinarritzko eskubide eta askatasun iturri bezala sentitu dugu".



Ioseba Otegi, Aitor eta Irati Zenotz (Ultzama):

"Etxean txandaka ibili gara. 15 egun egon ginen lanik egin gabe, baina, gero, ni goizez joaten nintzen lanera eta Itziar, arratsalde. Kaixo eta agur esaten genion elkar. Orduan, goizean Itziar egoten zen umeekin eta ni arratsaldean. Bera izan da eskolaz gehien arduratu dena, gehien bat goizetan bidaltzen baitzieten etxeko lanak.

Iratik izan du lan gehiago eta berarekin egon gara gehien bat, maila altuagoa baita berea. Aitorrendako alde emozionala izan da zailagoa, lagunekin jolastu nahi hori eta etxe barruan egon behar izate hori. Bere kasuan irakaslea ere gainean egon da eta gauzak bidali ditu, baina beste modu batean. Oso ongi portatu dira, oso ongi ulertu dute egoera."

Laura Juamperez, Unax eta Manex- Eguaras (Atetz):

Laura: "Niri telelanean aritzeko aukera eman didate eta txikiekin izan naiz etxean. Aitona-amonek txikiak zaintzea saihestu nahi genuen, arrisku taldean baitaude. Umeak lagundu behar izan ditugu 7 eta 8 urte baitituzte, hau da, ez daukate autonomiarik etxeko lanak bakarrik egiteko, antolatze, ordenagailua erabiltzeko..."

Zailena telelana eta txikien zaintza uztartzea izan da. Lanak ez du bulegoan egindakoaren emaitza bera ematen, ezin duzu arreta bera jarri. Horregatik, ordu gehiago ematen ditugu lanean.

Hezkuntza Departamentuaren erantzuna urria izan da, ardura guztia familiekin eta irakasleekin hartu behar izan dute. Nabarmenezkoa da ikastetxeak, irakasleak eta gurasoak egindakoa. Egoerak eskatzen zuen mailan izan gara erraza izan ez den arren".

Unax eta Manex: "Bai, pixka bat zaila izan da baina aitzak eta amak lagundu digute eta irakasleek etxeko lanak bidaltzeko egun gehiago utzi dizkigute. Familia eta gure lagunak ez ikustea izan da zailena".









Esan Erran irrattia

Egun Ero magazinak saio berezia egin zuen Pasareletatik

Kolaboratzaileez inguratuta eta Jauntsarasko Pasaderetatik zuzeneko saio berezi bat egin zuen Egun Ero magazinak. Irratsaioak Horrela agurtu zuen ikasturtea, udako oporretarako gelditu aurretik. Itziar Perez Argomanizek eta Garazi Zabaletak, Esan Erraneko esatariek zuzendu zuten saio berezia; Kolaboratzaileen parte-hartzea, jolasak, eta musika zuzenean eskaini zuten, azken hori Nua taldeko Itziar Olague lizasoarrari eta Gorka Metaxasei esker.

Ekainaren 19an egin zuten ikasturteari agur esateko saio berezia. Bertan bildu ziren hainbat kolaboratzaile eta lagun, guztira 15 bat pertsona. Eta Apeztegi berriko ostatuak prestatutako gosari ederra hartu zuten Egun Ero Pasarelatik hasi baino lehen.

• KOLABORATZAILEEN PARTE-HARTZEA

12etan saioa hasi zuten, kolaboratzaileek azkeneko berriak kontatu zituzten eta, gainera, esatariek prestatutako jolas batean parte hartu behar izan zuten. Irratiaren inguruko galderak erantzun behar izan zituzten, Egun Ero magazinaz eta Esan Erran irratiaren zenbat zekiten jakiteko. Proba ederki gaingitu zuten!

Saio berezia zuzenean galdu bazenuten, amezti.eus-en duzue

entzungen. Gainera, Latasako bizilaguna den Aritz Gorostiaga zinemagileak bideo bat prestatu du, bertan izan baitzen guztia grabatzen. Hura ere, [ikusgai](https://amezti.eus), amezti.eus-en.

• MUSIKA ZUZENEAN

Saioa eta hamaiketakoa girotzeko, gainera, Nua musika taldea -zati bat behintzat- izan zen. Bertan biola jotzen du Itziar Olague lizasoarrak, eta berari esker izan zen haien parte-hartzea. Berarekin Gorka Metaxas izan zen gitarra jotzen eta abesten. Ea hurrengo batean taldea osorik ikusteko aukera dugun, lau kidek osatzen baitute taldea.

Duela urte bete sortu zuten Nua, eta gurean hainbat kontzertu eskaini dituzte: Izarpe Kanpinean, Atetzen; eta, Larraintzarren, besteak beste. Kanpoan, Antsoainen ere jo dute.

• AGUR, IKASTURTE ARRAROARI

Horrela despeditu dute Egun Eron ikasturte arraroa. Izan ere, irrattia etxetik egin behar izan dute apiriletik maiatza bitartean. Zailtasunak zailtasun eta konfinamendu bat tartean, 120 elkarrizketa inguru egin dituzte irailetik.

Ostiraletan saio berri bat egin dute aurten, Egun Ero Kantuz, gure bizilagunak hobeto ezagutzeko saio musikatua. 20 herritar baino gehiagoren bizitzako kantak ezagutu ditugu bertan. Berriro entzun nahi izanez gero: <https://amezti.eus/irrattia/egunero-kantuz>

Eta noski, dozena bat kolaboratzaile baino gehiagok parte hartu du, aurten, Egun Eron. Eskerrik asko guztioi!



Talde argazkia atera genuen irratsaioa bukatutakoan



Esan Erranen zuzenean entzun ahal izan zen saioa



Larruaren Txokoa

Larruaren Txokoa jarri du Xabier Iturriotz 'Zapak'-k bere Erasoko bordan. Kontakizunen eta xelebrekerien bidez, oinetakoak nola egiten diren eta haien historia eta sinbologia ikasi dezakegu erakusketa finko honetan. Gainera, larruaren historiari buruzko informazioa ere aurkituko dugu. Aspaldi buruan zuen ideia gauzatu du azkenik Zapak, konfinamenduak eskaini dion denboraz baliatuta. Ostiraletan, goizean eta arratsaldean, eta larunbat goizean bisitatu daiteke Larruaren Txokoa.

•ZENBATEK HARTU DUTE PARTE?

Borda eraiki zuenetik, duela 10 urte baino gehiago, buruan bueltaka zuen ideia Zapak: larruaren eta oinetakoen historia modu didaktikoan azalduko zuen erakusketa sortzea. Materiala diseinatuta zuen duela hiru urte, eta, konfinamenduan, azken bultzada eman dio. Izan ere, duela hiru urte asmatutako materiala bordako paretan zintzilik ikusi dezakegu, honezkero.

Beheko solairuan, oinetakoei buruzko kontakizunak eta

xelebrekeriak irakurriko ditugu hainbat paneletan. Goialdean, larruaren ingurukoak. Erakusketa borobiltzeko, hainbat bideo ere ikusi daitezke, bordan bertan baitu Zapak bere zinema aretoa.

Erakusketa osatzen duten panelen marrazkiak Lakuntzako Iker Uribek egin ditu. Besteak beste, Ni neu galtzeta eta Xaxardi umeendako liburuak ilustratu ditu Uribek, Joana Ziganda oskoltarrarekin egindako lanak dira horiek. Testuak osatzeko Rebeca ... diseinatzailearen laguntza izan du Zapak.



Erakusketaren zati bat ▲

•SALMENTA ZUZENA

Erakusketa osatzen duten kontakizunez gain, oinetakoak egiteko tresnak eta makinak ere ikusi daitezke. Baita Zapak eta bere kideek egindako zapata ugari ere. Izan ere, salmenta zuzenerako tokia ere izanen da borda.

Jakina denez, azokak bertan behera utzi ditu Covid-19ak. Horren ondorioz, Imozko zapatariak aitortu digunez, salmentak erdira jaitsi daitezke uda honetan: "Ez dago azokarik. Orain Eskoriatzakoa zetorren, eta gure bezero finkoak ditugu bertan". Azoken gelditzeari, gainera, etorriko den egoera ekonomikoa gehitu behar zaio.

Azokarik gabe, beraz, etxean bertan saltzea erabaki du Zapak. Borda, gainera, tailerraren ondo-ondoan du. Eta erakusketaren bisita gidatuan zapatak nola egiten dituen azaldu digu tokian bertan.



▲ Erakusketa jarri berri du Zapak Imotzen duen bordan



Arrarats

Bi tiroz, garbitu zuten aizkolaria

Bere garaian, heriotza honetaz hainbati galdetu nien. Grabazioa ere gehientsunein egin nien. Eta denek ere berdintsu kontatzen dute.

Datu emaileak honako hauek izan ziren:

Juan Jose Leziaga Arretxea, **Kasteneko** maistarra izana.

Juan Alberro Descarga, **Igoako Etxeberriko** semea.

Pedro Barberia Iturralde, **Arrarasko Iriarteko** nagusia.

Angel Martija Lizaso, **Igoako Matxineko** nagusia.

Jose Etxarri Barberena, **Berueteko Barboneko** semea.

Martin Arrarats Barberia, "Kaaño", **Kaaño bordan** hazitakoa.

Patxi Aldaregia Barberia, **Aldazko Apezenetxikiko** semea.

Juan Joxeren kontakizuna hartu dut bizkarrezur bezala, gainerakoan zertzaladaren bat sartu badut ere.

• NOIZ IZAN ZEN?

Heriotza hau Arraratsen gertatu zen, 1937ko udazkenean, gerra bete-betean zenean. Hain zuzen, gure kalkuluen arioren, 1937ko urriaren 24an behar du izan.

• PROTAGONISTAK:

Jose Saldias Mariezkurrena 32 urteko gaztea, ezkurarra, eskopeta-tiro bi hartu ondoren hilen zena Iruñean. Ehiztari aparta. **Mendizabalean** joan zen hamar urtean mutil zegoena.


Eta Miguel Alberro Oderitz, **Joantorneko** semea, ondoren bertako nagusia izanzen zena, hiltzailea. Hau ere ehiztaria zen eta Jose Saldiasen adiskidea. 34 urte betetzekoak.

Biak gerrara joan ez zirenak

adina zela eta, **Joantorne** juxututik eskapatua izanen zen, urte bategatik, ustez.

• NON GERTATU ZEN?

Honetan ez dago deus gehitu beharrik, den-denak gauza bera esaten dute, Arrarasko ostatuan gertatu zela eta bertako sualdean. Orduko ostalaria Madalena Villanueva Egozkue, Benito Goñi Juanbeltzen andre gaztea. Hau arotza zen eta sasi-albaitaria.



1932ko Diario de Navarra hara zer datorren. ▲
Lepahori bizia saltzen duela Saldiasen.

NOLA GERTATU ZEN?

Juan Jose Leziaga **Kastenekoak**, kontatua. Honek, berriz, bere aitari entzuna, hau zoritxarreko egun hartan han tokatu baitzen.

*Leenau taarna biltzen baitzen yende asko, ta **Yoantorneko** Miel horrei irre bezala itten omen zioken bete ezkurarrak. Fanfarron antxa omen yun ta mutille bizkorra're bai. Yoantorneko Miel'ere hala yun duikai.*

Jai atsaldia'tian musin ai men'ittun ta, beti're, erokeritan, elkar ukitzen, ziriketzen ta, burruke hase, yende ondoan ba omen zioken ta beixten ta bat eta beste, ta Mielei kolpen batzuk eman bear'etzen lekun, ta yendeek beixi ta:

-Hil zaiek e! Gañakoz txarra heldu zaik. -esan omen zioken Mielek. Ta atia in ben'yun, itxaa!

Ta handik ratotxoat'ia etorri omen'yun, ta eskopeta -kutxa't eoten omen'yun- ta Kutx'harren kontra, taka, sartu omen'zin.

Sukaldea sartu ta Madalenei (ostalariari) esan omen zioken:

-Maalen! Ekarri baso'at ure!

Ta baso'at ure ean omen'zin ta atia omen'yun sukalde'ik ta hartu ben'tzin eskopeta ta ezkurarra rrrria! mai azpia sartu ben'yun ta Mielek tiatu ta seko!

Ta Mielek esan omen zin:

-Baai, neek in dut hau. Esan nion! Hiltzeko nei, gañakoan gauze txarra heldu zaiola!

Ta goittin izaten yun zepoa eo, ta zepoan sartu ben'tziten Miel, seiduan (1)



Joantornea. Hemengoa genuen hiltzailea: Miguel Alberro Oderitz. Kartzelaldia egin, ezkondu berandu, umerik izan ez eta Iruñera joan zena, hemen maistarra utziz. ▲



• BESTERIK:

Juan Alberrok zuzen aipatzen du non zituen tiroak: belaunburuan bat eta lepo uztaian bestea, erabat xehatu ziona.

Joxe Etxarrik gehitzen du, eguerdi arte guzian ehizan ibili zirela elkarrekin. Eta ilunabarrean ostatuan, musean elkarrekin hasi zirela, baina, beren *erdoi-zikiñe* ezin eutsiz, borrokan hasi. Bai Joxek eta bai gainerakoek ere aipatzen dutena da nolako ultzia eman zion ezkurarrak Joantorneri.

Pedro Barberiak kontatzen du nola aurreko igandean ere beste gazte ahulxko bat jo zuen ostatuan ezkurarrak. Eta hala esan omen zion hurrengo egunean ehizian zebiltzala Joantornek: *Biño, biño gizon horrei hola emain'ttok ba! Nei hola in baie, honako bi tiro hok hortxe izain'ttun sartuik!*

• HERIOTZA

Esan behar da Jose ez zela hil egun berean, medikua deitu eta berehala Iruñera eramateko. Bertan, Ospitalean, luze samar egon zen, hil zen artio, azaroaren 10ean. Hau da, Joxe gizajoa 17 egun luze egon zen ez bizi eta ez hil. Iruñean lurperatu zuten.

• BESTE ZERTZELADA BATZUK:

Juan Josek hola bukatu zuen bere kontakizuna:

"Mielek aipatuko zin, noiznai e! noiznai!:

*-Ne berriz'e yarri'skioz jenio txarrin....
Nee infernura yoan'az, baño nee ukitzen balen'bade bear ez den lekun eo, nei e'tzait inporta best'at hilta're"*

(Honetatik igartzen da, ezkurarrak behar ez zen lekuan jo zuela Miel, barrabiletan edo)

OSTALARIAREN ANEKDOTA

Horrelako gertakari latz eta beldurgarriak, aho goxagarri, arinago den konturen bat merezi du.

Madalena, ostalaria, Etxalekuko **Fidelen etxekoa** zen. Hau gertatu zenean 34 urtekoa, 8 bat urte ezkondua eta haur batzuk zituena ordurako. Senarra baino 17 urte gazteago, 24 urtetan ezkondua. Izugarri ona omen zen, beti besteei nola on egin buruan zuena.

Senarra, Benito Goñi, arotza zuen eta sasi albaitea ere bai. Han eta hemen, ondoko herrietan ibiltzen zen, deitzen baitzuten aziendaren bat gaizkitzean.

Hala esaten omen zuen bere semeak:

-Hobe genikek aterako ez balitz. Ez dik inoiz kristorik ekartzen

etxera. Ederki edan eta gosaldue do bendatu bai, baina dirurik ekarri, deus ez.

Behin, neguan, sutegian edo izan behar zuen, andre kontuak atera hizpidera eta Benitok berea nolakoa zen eta, bota omen zuen:

-Etxean agertzen banauk, apustu eginen nitek baietz Maalena-k (bere emaztea) bortzegik kendu baino lehen tragoa atera!

Ezetz eta baietz, eta ezetz eta baietz. Apustua egin eta horrela joan zen etxera aldamenen laguna zuela. Sartu etxean, jarri sutondoan, eta Maalenak momentuan:

-Zer, hartuko duzue tragoxka't? -eskuan botila ardoa zuela eta bortzegiak laxatzen hasteko ere denborarik eman gabe.

Preso lau urtez egon zen, hau seguru kontatzen du Pedro Barberiak.

Patxi Aldaregiak, aldaztarak, berriz, **Joantornekoan** mutil egon zenak aipatu izan dit Miel Alberro gizon zuzena eta ona zela. Honen onberatasuna ere gainerako guziak aipatu izan didate. Gizona hil zuen, baina, dirudienez, ez zen bere barne gaixtoarengatik izan, onbera baitzen.

Eta kartzelean oso labur egon zela ere den-denek aipatzen dute.

OHARRA:

(1) *Lehenago herri guzietan izaten zen kartzela, bere zepoarekin, herrikoetxean. Arraratsen bigarren pisuan izaten omen zen.*

 **Txurdan**

• Hiztegia

- **Erdoi-zikiñe:** Herdoil zikina.
- Elkarrenganako esanbharra, kexua
- **Lepo uztaia:** clavicula.
- **Barrabila:** potroa, koskabiloa (azken bi hitz hauek lagunartekoak dira)
- **Ultzia:** eultzia, zanparrada handia (Berez, trilla da)

Mendizabalea, azpiko aldetik. Etxalde handia. Beti mutila izaten zuten. Eta are gehiago, nagusia, Severino Oskotz Barberia hil zenean eta seme zaharrena, Luis, Ameriketara joatean. Honen hurrengo sei senideak neskatxak ziren; eta hurrengoak eta azkenak, bi mutiko, Pako eta Felipe 14 eta 10 urtekoak.





Errezeta pausoz-pauso entzuteko

Almendra tarta

Jakina denez, Orokietako ostatuarekin batera, Ernaizu kooperatibak kudeatzen du Apeztegiberri. Eta, bertan, almendra tarta da postre kuttunenetariko bat. Kooperatibako kideak diren Laura Martinenaren eta Irentxu Martinenaren familiako betiko errezeta bat da almendra tarta. Goxoa eta, gainera, glutenik eta esnekirik ez duenez, edonork hartu dezakeena, baita zeliakoek edo alergikoek ere. Marinenatarren bazkidea den Virginia Gerendiainek azaldu digu 20 bat pertsonendako tarta nola prestatu.

OSAGIAK

Almendra txikitua: 375 gramo

Azukrea: 375 gramo

Arrautzak: 10

Almendra xaflak: nahi beste

Gurin pixka bat

• PAUSOAK:

1) Gurina berotu, eta ontzian zabaldu, tarta itsats ez dadin. Horren ondoren, almendra irin pixka bat bota ginean.

2) Arrautzak irabiatu. Azukrea gehitu, eta berriz irabiatu.

Pauso honetan, adi: ongi eta poliki nahastu behar da, errezetak legamiarik ez baitarama (zeliakoek ezin baitute legamiarik hartu). Arrautzak azukrearekin ongi eta poliki nahastuz, tartari altxatzen lagunduko diogu.

3) Mihi batekin poliki-poliki almendra irina edo txikitutako almendra botako diogu. Mantso-mantso nahastu behar dugu, pikorrak ekiditeko.

4) Ontzian poliki bota, eta, ondoren, xerratutako almendra gainetik bota.

5) Amaitzeko, labean sartu, 30 minutuz. Aurretik, gainontzekoa prestatzen genuen bitartean, 180 °C -tan berotu dugu labea.

Bizkotxo moduko tarta bat denez, marmelada edo txokolatea bota diezaiokegu gainetik. Apeztegiberri-n esnegain pixka bat ere jartzen diote.

▼ almendra tarta



▲ Apeztegiberriko Virginiarekin

Koronabirusez kutsatuak

2015eko abuztuaren 13a zen. **Lizasoko Juankotonera** (1) deitu behar nuen. Telefonoa eskutan hartu eta etxe horretako numeroa markatu nuen. Hots egin eta bestaldetik norbaitek telefonoa jaso zuenean, honela izan zen elkarriketa:

-Egunon, Lizaso?

-Que?

-Ea Lizaso den?

-Que?

-Ez al da hor Pedro Zuzitola bizi?

-Es que no te entiendo.

-Nora joaten zara eskolara? Larraintzarra? (euskaraz ote dakien jakin nahi nik)

-Bai.

-Eta euskaraz ez dakizu?

-Es que se me ha olvidado.

-Ah! (Hilabete pasatxo oporretan eta euskaraz atzendu zaio!!!!)

-Eta nola deitzen zara? (2)

-Ni, Juan, eta zu?

-Zer nahi duzu?

-Zure amarekin hitz egin.

-Ongi.

-Baina, nik esan dizut nire izena, eta zurea zein da?

-Ainara. Agur.

Eta Ainararen amarekin hitz egin nuen. Hori gertatutakoa, gainerakoak ez du inportantziarik.

Euskaraz atzendu zaio Ainarari denbora laburrean. Eta nik diot, orain, koronabirus dela eta, hemengo haurrak eskolara orduko sei hilabete izanen dituzte etxean, "oporretan", gehienak euskara usaindu gabe, etxean ez dakitelako, ETB jartzen ez zaielako, euskaraz

irakurtzen ez dutelako...

Benetan, euskarak hartutako kolpea katastrofikoa izan da. Nork zer egin du euskararen pandemia honen kontra? Gurasoek zer bide hartu dute? Eta irakasleek? Edo Hezkuntza Departamenduak?

Galdera hauei emandako erantzuna zein da? Inork eman ote dio erantzunik? Eta Hezkuntza Departamentuak? Honi ez zaio axola. Guziok dakigu nor den horko burua.

Koronabirus honek ardo frexko eta on baten beharra utzi dit. Benetan egarri naiz. Zatozte zuek ere ostatura eta ardorik frexko eta gustagarriena proba eta lasai irents dezagun. Maitasunez!



Txurdan

OHARRA:

(1) Lizason ez da **Juankotonerik**. Ultzamako beste inon ere ez. Baina garbi esanen dizuet, kontu hau benetan gertatua da. Ultzamako herri bateko haur batekin gertatua. Etxe horretan amatxik badaki euskaraz, aita ederki konprenitzen du eta amak ez daki, nahiz hemengoa izan.

(2) Neskatoak honako hau galdetzen dit: Eta nola deitzen zara? Hori ez da euskara, hori euskara mordoiloa da. Euskañola. Hemen betitik, Zuri nola zaizu? edo Nola duzu izena? esan izan dugu.

Pittinka-pittinka euskarak behera egin du, erosionatuz, xahutuz, xehatuz joan da. Nora goaz bide honetatik? Hemen denok gara arduradunak: jendea, umea, gurasoa, irakaslea... Ez ditzakegu esaera motzak, galderak, usu erabilitako esaldiak, interjezioak... ongi ikasi haurrei behar bezala irakasteko? Hor utziko dut gaurkoan azken gogoeta hau.



▲ Basaburuko udaletxea apainduraz leher. Dena dela, izan zitekeen Basaburuan gertatua, baina ez, Ultzaman gertatutakoa ekarri dugu gaur hona.



Julian Beuntza Ilarregi



Lanzko azken euskalduna

Agur adiskide:

Beti dut gogoan joan nintzen arratsalde hura. Bezperan zure artaldeko azken ardiak saldu zenituela esan zenidan momentua dut gogoan. Begiak gorritu, busti eta malkoak matailetan behera ixuri zitzaizkizunean.

Bai, Julian, iltzaturik gelditu zitzaidan nekazari bat negarrez lehen aldiz ikustea. Beheitiko behitegi hustua erakutsi zenidan eta sukaldera arren eta arren igotzeko erran zenidan. Eta ni zure atzetik gora, une triste hura nola arindu ez nekiela.

Eta, hala, ez dakit zergatik, galdetu nizun:

-Julian, aunditz errezatzen al duzu?

-Bai, bai, aunditz errezatzen dut, aunditz errezatzen dut.

-Errosarioa?

-Ez, ez, errosarioa ez, luzakarak dira errosarioak.

Eta ene oroimenean dut bigarren aldiz eta hirugarren aldiz azpimarratu zenidala, nik sinetsi ez banizu bezala. Eta nik, baietz, baietz, bigarren aldiz, eta hirugarrenean ere bai.

Eta une hartantxe, inoiz elkarrekin egon gabeak, inoiz elkarren berri jakin gabeak, adiskide min gertatu ginen.

Eta solasaldia luzatu zen eta zure aldarte alaia eta umoretsua ere erakutsi zenidan. Erakarri ninduzun. Zure apaltasun xaloak eta zure jakinduri ezkuak nire bihotza bat-batean irabazi zuen.

Eta ea sukaldeko telebista zahar hautsez estali hura aunitz ikusten zenuen, eta ezetz, urteak zirela ixiki ere ez zenuela egin. Eta berehala, ez dakit zergatik, baloreez hasi zinen: baloreak galtzen ari dira; *bide guziak*

galtzen, xendarik ez da, dermioen izenik inork ez daki, lehenago xoko ttikienak ere bere izena zuenean...

Eta solasak, ez dakit zergatik, beste leku batzuetara eraman gintuen baloreen galerak alde batera utzita. Bai, adiskide zaharrak bagina bezala izan zen solasaldia.

Ea zergatik gelditu zinen mutilzar, ea zergatik zu gelditu zinen etxean, nekazari, eta kontatu zenidan ez dakit zer eta erakutsi zenidan zure bihotz lotsati bihozbera. Zure artzain eta behizain lanak, tolesgabea eta bizipozaz betea alde batetik, baina zenbait tristurez, pentsamenduz... izan zitekeena eta izan ez zena...

...nik behiak; anaia zen artzaina, artzain tituluduna anaia zen, nik laguntzen nion... eta gure bordan badira XVII. mendeko (1) sagaleak, gure birraitxik eginak eta oraindik hor daudenak. Eta nire eskuetara etorri dena eta orain artaldea bukatu da betiko. Ez dakizu nolako pena dudan bihotzean!

Berandu zen, berandutu zitzaidan eta... behar nuela abiatu; eta ezetz eta ezetz, gazta eta ogia hartu behar genuela... eta ni ez nintzen gelditu.

Nirekin batera eskaileretan behera, zu: *-edozein beharretarako hemen nauzu, edozein beharretarako hemen nauzu. Zatoz nahi duzunean.*

Eta nik, bai, bai, azalduko natzaizu, luze baino lehen.

Baina luzeegi joan zen. Ni horra, **Danboliñenera**, agertu nintzeneko, bezperan edo bezperaren bezperagokoan Elizondoko xahartegira eraman zintuzten.

Gero ere elkartu ginen egun batez Elizondon, zaharretxean, baina... ez zen egun aproposa, joan berri hartan nahasi xamarra antzeman zintudan...

Lanzko egun hartan Pulunperako

protagonista nahi zintudan, zure biziaz, zure lanez, istorioz eta hainbat kontuz nahi nituen bete bi orrialde eta ezetz, anonimatoa maite zenuela. Eta nik, *hori bada nahia ez dut deus aterako...*

Bai, hitz eman nizun, Julian, baina badakizu, nire hitz hori zu bizi zinen artio zen, zu mundu honetan bizi zinen artio. Azken hau ez nizun esan baina...

Bai, barkatuko didazu zure berri hauek hemen atera izana, Julian, baina gaur isiltzeko ez nuen gogorik ez borondaterik eta ez federik. Egin behar dena egin behar da eta ez bertzerik.

Julian, zer nahi duzu erratea, zer gogo duzu gure Pulunpe honetan jar dezadan? Asmatzea ez da erraza. Agur, egun handirarte, Julian, Lanzko azken euskaldun arrosa paregabea. Agur adiskide!



Txurdan

(1) XVII. mendean ari da Julian, baina XIX. mendea da.

- • • • • **Hiztegia** • • • • •
- **Arren eta arren.** Mesedez eta mesedez • • • • •
- **Luzakara:** luze antzekoa. (gaztainkara, berdekara..., kolorea adierazteko ibiltzen da. Baina luze hitzarekin ez nuen ezagutzen) • • • • •
- **Azpimarratu:** subrayar • • • • •
- **Aldartea:** personaren gorputz eta gogoaren egoera • • • • •
- **Ixiki:** piztu. Gurean beti ixiki ibiltzen da • • • • •
- **Tolesgabea:** sin doblez • • • • •
- **Sagalea edo salea:** aziendeari belarra edo lastoa jartzeko tokia. Orain ez da izaten horrelakorik. • • • • •
- **Gogo duzu:** nahi duzu (Esan molde hau oraindik Ultzaman bizirik dago) • • • • •



Zoriondu zure laguna
Pulunpen!
pulunpe@gmail.com

Zorionak Zorionak !

Zorionak Dagim!



Zorionak Naroa!



Zorionak Martintxo!

Zorionak Maial!



Zorionak Oihán!



Aitor Iraizotz

Ultratrail lasterketetan buru belarri

Kirolaren munduarekin betidanik izan du lotura estua Aitor Iraizotz Aritzuarrak (Anue). Gazteagotan mendiko bizikletan ibili bazen ere, azken urteotan mendiko lasterketetan dabil buru belarri, emaitza onak lortuz horietako askotan gainera. Konfinamenduaren azken astean elkarriketatu genuen, eta onartu zigun, bi hilabetez mendia ukitu gabe egotea zaila egin zaiola.

Noiz hasi zinen mendi lasterketekin eta nondik nora iritsi zinen mundu horretara?

11-12 urte dira lasterka hasi nintzela. Lehen mendiko bizikletan ibiltzen nintzen, baina poliki-poliki mendira korrika edo oinez joaten hasi nintzen, eta gustua hartu nion. Garai horretan hasi ziren mendiko lasterketak ere ezagunago egiten, Nafarroan, Pirinioetan, Alpeetan... atentzioa ematen zidaten, eta duela hamar urte egin nuen lehen lasterketa, Ezkabakoa, 30 kilometrokoa. Hortik aurrera lasterketa gehiagotan eta distantzia handiagokoetan hasi nintzen: Guarakoa egin nuen urte hartan ia 100 kilometrotakoa. Eta nahiko ongi moldatu naiz beti distantzia luzeetako lasterketetan.

Gorputza distantzia luzeagoetara pixkanaka ohitzen joan beharko da, ezta?

Bai, hori da. Pixkanaka bazoaz ikusten non sentitzen zaren erosoago, eta poliki-poliki gorputza ere egokitzen joaten da. Denbora bat horretan daramazunean jada gorputza ohitu egiten da eta nahiko ongi moldatzen da. Batzuetan badirudi distantzia luzea izanagatik gogorregia dela, baina gorputza egokitu egiten da eta ongi darama.

Azken urteetan geroz eta mendi lasterketa gehiago egiten dira gure inguruan. Zer du kirol honek berezia?

Gauza asko ditu, baina batez ere sinpletasuna: ez duzu ezer berezirik behar, zapatila batzuk

edukitzearekin nahikoa da. Gainera, inguru hauetan mendiak etxetik hurbil ditugu, eta ez dugu desplazamendu handirik egin behar. Horrez gain, ariketa atletiko bat da, baina aldi berean mendian egiten dena, eta hor erakargarritasun asko elkartzen dira: mendian egotea, paisaiak, ariketa fisikoak dakartzan onurak eta sentsazio onak...

Ze lasterketetan hartu izan duzu parte, gurean nahiz kanpoan?

Urtean lauzpabost lasterketa egiten ditut eta ongi aukeratzea gustatzen zait: lekua erakargarria delako, zonaldea polita delako –eta ezagutzen ez badut oraindik hobe–, eta kirol aldetik maila ona egotea ere garrantzitsua da. Egin ditudan lasterketa gogorrenen artean dago Mont Blanc-eko lasterketa ezaguna, bi aldiz egin dudana: 170 kilometro dira, ultratrail munduan dagoen ezagunena, eta 2.500 lasterkaririk hartzen dute parte, munduko onenak. Hori da potenteena, agian. Baina hemen inguruan ere asko egiten ditut, Pirinioetan eta. Iaz, adibidez, Sobrarbeko bailaran egin nuen lasterketa bat, irabaztea lortu nuen eta oroitzapen oso ona dut.

Nola entrenatzen duzu?

Bakarrik entrenatzen dut azken aldian, oso goiztiar aritzen naiz: goizeko 6etan ateratzen naiz etxetik. Etxeko martxa dela, familia dela, lana dela... bizitzako momentu honetan ez dut goiz pasak edo egun pasak egiteko aukera handirik.



Duela hamar urte egin zuen lehen mendi lasterketa Aitor Iraizotzek



Lurraren

“Ospakizunak, ohitura arduratsuak sustatzeko aukera”

Hemen da uda aurten ere, honek ez du inoiz kale egiten. Eta honekin batera, udako planak: hemendik hara ibiltzekoak, adiskide eta senitartekoekin otorduak antolatzeakoak,... Dirudienaz aurten gertuago ibiliko gara, bestarik ere ez da ospatuko, baina mendira, hondartzara, ibaira,... egun eta gau pasak ez dira faltako. Dagoeneko hasiak gara eta Lurrak ere sumatu du: hasi da plastikozko ontziteri dantza, kontrolik gabe erabiltzen den paper-biribilkia ere leku guztietan agertzen hasi da eta besta bukatu ondoren zakar poltsa kuadrila.

Lagun-talde guztietan egon ohi da zakarra poltsa ezberdinetan bereizi beharko litzakeela proposatzen duen bat edo beste,

lehenago ez zen hori gertatzen, esaten dute batzuk. Eta gero zalantzak: paperezko musuzapiak birtziklatu daitezke? Eta kartoizko platerak? Eskerrak norbaitek badakien paper zikina ez dela birtziklatzen! Kartoizko plater eta edalontziak “plastikoaren alternatiba” bezala saldu nahi dizkigute baina erabilera bakarraren ondoren hondakin bihurtzen denak ekologikotik gutxi edo ezer ere ez du.

Has gaitzen bada, etxetik kanpo ere arduratsuak izaten eta bisitatzen ditugun lekuak aurkitu bezala uzten. Konponbidea ez da guztia poltsetan gorde eta edukiontzi batean ahaztea, gurea ez balitz bezala. Antola gaitzen aldeztu aurretik eta

eraman beharreko gauzen zerrenda egiterakoan erabilera bakarrekoak zerrendatik kanpo utzi.

Lan gehiago dela? Zer iruditzen bakoitza bere ontziteri eta musuzapieztan arduratzen bada? Agian, hurrengoan zu izan zaitezke aurea hartu eta mezua bidaltzen duena esanez bakoitzak bere ontziteria eramateko.

Gure ohiturak aldatzea baino zailagoa izaten denez besteen ohiturengan eragitea, oraingoan bi hilabete emango dizkizut entrenatzeko, ziur nago aukera bat baino gehiago izanen dituzula. Ez aukerak galdu eta animo, posible da eta!

 **Lurra**



▲ Zaborrak eta plastikoak erreka eta itsas bazterretan agertzen ari dira honezkero



Azken nobedadeak

Ahal bezain laster, liburu-dendek ateak berriro ireki zituztenean, hara joan ginen nobedadeen bila (auzoko liburu-denda batera, hain zuzen ere). Asmoa, liburutegiko apalategiak freskatzea eta gure irakurle maiteok liburu on baten laguntzarekin uda pasatzea, zuhaitz baten itzalpean (edo ez, Gorbeiaiko artzainak esan baitu ez ditugula ikusiko hiru egun eguzkitsu jarraian iraila arte).

Hona hemen erosi ditugun liburu batzuk:

HELDUENTZAT

- ERBESTEKO ELURRA (FELIPE JUARISTI)

Erruak erro luzeak ditu. Mina da, eta ez jakintza, kontzientziaren giltza. Egon nahi ez dugun tokian egotea da erbestea. Elurra egiten du, eta hotzak gorputza hartzen du, erbestea ez-toki baita. Fermin Alberdi euskal kazetaria Madrila bidaltzen dute Sebastian Saldiasen azken egunak nolakoak izan ziren kontatzeko. Horrek bizitza aldatuko dio. Hori da eleberri honen abiapuntua. Baina, funtsean, maitasuna zer den adierazi nahi da. Maitasunari eustea bizitzari eustea baita; bizitza maite duenak ezin du maitasunik gabe bizi. Musikaik gabe ere ezin da bizi, berak eramaten gaitu egon nahi dugun tokira. Bakea, azken finean, errurik gabeko mundu berri batera sartzea baino ez da.

- AIREA EZ DA DEBALDE (JOSEBA SARRIONANDIA)

"Ez zekiela -zioen Bizitza ez al da oso arriskutsua? liburuaren sarreran autoreak- irakurtzeak askeago egiten gaituen ala gure arazoez kontzienteago bakarrik.

Egunerokotasunez eratutako saiakera literarioaren ubera hari jarraitzen dio baita Airea ez da debalde honek ere. Habanako kronika asko daude, hiriak 500 urte betetzen dituen urtean. Senitartekorik zaharrena balitz bezala: lekua, gauden lekua izateaz gainera, garen lekua da.

Indigena, beltza, nazio baztertutako, diru gutxikoa, emakume edo errebelde izatearen inguruan arituko gara zoritxarrez eta dohainez. Noizean behin, telebistan bizi nahi ez duen eta kosmonauta izan nahi lukeen ume bat pasatuko da. Bizitzaren eta aniztasunaren aldeko erresistentzian, pertsonaia biziarekin batera, mamuak ari dira: Eguzkia rona edatera gonbidatu eta goizaldetik zain dagoen Enriquito, Anaïs Ninekin besotik helduta Vedadoko 11 kaletan barrena ibiliko den Bartolome, Santa Teresa edo Caryl Fabritiusen kardantxiloa.

Lezio batzuk ere izango dira, konfusioan. Esate baterako, Onelio Jorgeren eskutik ikasiko dugu bizitzan bi gose mota daudela, ogiarena eta koral zaldiarena. Errealitateagatik ez ezik, imajinarioagatik ere bizi garelako"

- BÚNKER (TOTE KING)

Totekingek, estatuko rap-izar handienetako batek eta irakurle amorratuak, "Zure oroitzapenetara bidaiatzea borroka bilatzea da" idazten du liburu honetan. Eta berak horixe bera egiten du, beldurrik gabe. Liburuak maitatzen irakatsi zion aitak, kalekolehenengosaskibaloï partidak, rapa, literatura... Hori guztia dago Bunker honetan, eta hartatik ateratzen da Toteking horiek guztiak kontatzeko, apaltasunez eta zintzotasunez.





- LA HIJA DE FRANKENSTEIN (ALMUDENA GRANDES)

1954an, German Velazquez psikiatra gaztea Espainiara itzuli zen Ciempozuelosko emakumeen eroetxean lan egiteko, Madrilgo hegoaldean. 1939tik, hamabost urtez Suitzan bizi izan da, erbestean, Goldstein doktorearen familiak babestuta. Ciempozuelosen, Aurora Rodríguez Carballeira parrizida paranoikoarekin elkartuko da. Oso

argia, hamahiru urterekin liluratu zuen Aurorak German. Eroetxean, gainera, erizain laguntzaile bat ezagutuko du Germanek, Maria Castejon. Aurorak irakurtzen eta idazten irakatsi zion Mariari, txikitan, eroetxeko lorezainaren biloba baitzen. Germanek, Mariak erakarrita, ez du ulertzen haren arbuioa, eta bere bizitzak sekretu asko ezkutatzeko dituela susmatzen du. Mariaren jatorri xumea, Madril

egindako neskame urteak, maitasun istorio dohakabea ezagutuko du irakurleak, baita German Espainiara itzultzeko arrazoia ere. Beren iraganetik ihes egin nahi duten arima bikiek, Germanek eta Mariak beren buruari aukera bat eman nahi diote, baina herrialde umiliatu batean bizi dira, non bekatuak delitu bihurtzen diren, eta puritanismoak, moral ofizialak, mota guztietako abusuak eta harrapaketak estaltzen ditu.

HAURRENTZAT

- MORTINA (BÁRBARA CANTINI). 8-10 URTE


Mortina neskato bat da, baina ez bestek bezalakoa: zontzia da. Villa Dekadenten bizi da izeba Angustias eta beti berarekin dabilen Betilunekin, bizirik edo hilda dagoen jakitea zaila den txakurrarekin batera. Mortinak bere adineko lagunak izan nahiko lituzke, haiekin jolastu eta ondo pasatzeko, baina izebak ez dio uzten besteen aurrean agertzen; izan ere, jendea ikaratuko luke



▲ Mortina

- ONIN ETA ALT XORRAREN UHARTEA (IBON MARTIN) 8-12 URTE

Kaixo! Onin naiz eta Erik izeneko neba biki bat dut. Gehien gustatzen zaiguna lagunekin ondo pasatzea da, eta abentura sinestezinak bizitzea. Etorri nahi zenuke gurekin Urdaibairen bihotzean dagoen uharte mortu batera? Izaki mitologikoak ezagutuko dituzu, eta itsasgizon zahar bat, eta baita mapa sekretu bat ere. Igo zaitez gure itsasontzira eta lagundu piraten altxorra bilatzen!



▲ Futboleroak

- FUTBOLEROAK ETA ARBITROAREN MISTERIOA (ROBERTO SANTIAGO) 8-10 URTE

Futbol-partidak, misterioak, musuak... Futbol-talde bat baino askoz gehiago da Soto Alto: Futboleroak dira..

Esan bezala, hautaketa bat baino ez da. Nobedade guztiak kontsultatu daitezke liburutegiko blogan: <https://ultzamakoliburutegia.blogspot.com/>. Hor ere, liburutegiari buruzko azken albisteak ikusi daitezke (liburuak bueltatzeko eta maileguan hartzeko arauak, noiz hasiko den funtzionatzen erritmo normalean, eta abar. Gogoratzen dizuegu, bestalde, udan (uztailetik irailera) ordutegia aldatuko dela: goizez lan egingo dugu. Eta egun batzuetan itxita egongo da, oporrak hartuko baititugu. Hoberena da, beraz, noizbehinka bloga kontsultatzea. Zaila da esatea zer gertatuko den irailean, baina espero dugu, normaltasun osoz funtzionatzea, eta berriro zerbitzu guztiak eskaini ahal izatea!

 **Patxi Irurzun**
Ultzamako liburuzaina

2020ko maiatzean

2020ko maiatzean gure alderdian izan ziren jaiotzak, ezkontzak eta heriotzak:

Jaiotzak:

ULTZAMA Urritzola

Ibai Morrondo Lopez, maiatzaren 22an sortu zen, Alvaro eta Mariaren alaba.



▲ Ibai Morrondo etorri zaigu eta pozez dago dago familia

“ Zorionak gurasoei ”

Ezkontzak

Otsailean, guk dakigula, ezkontzarik ez dugu izan.

“ Gure oroimenean izanen zarete ”

Heriotzak:

ANUE Burutain

Javier Rekarte Rekarte, maiatzaren 26an hil zen, 88 urtetan, Eskoletxean.



▲ Javier Rekarte

ATETZ Beuntza

Jose Luis Lopez Ros, maiatzaren 22an hil zen, 75 urtetan. **Sibilleneko etxezarreko** nagusia



▲ Jose Luis Lopez Ros, artista

LANTZ

Julian Beuntza Ilarregi, maiatzaren 15ean hil zen, 92 urtetan. **Danboliñeneko** nagusia.



▲ Julian Beuntza

MANTENTZE - LANAK · INSTALAZIOAK · KONPONKETAK · ARGI PUBLIKOAK
PROYEKTUAK · AURREKONTUAK · BOLETINAK ETA ZIURTAGIRIAK

KARRIKOLAR

ELEKTRIZITATEA



629 31 53 32 · 722 766 835

LIZASO · karrikolaregoitz@gmail.com

**GOTELET-A
KENTZEA**

**FATXADAK
ZAHARBERRITZEA**

**IRAGAZGAITEA
(IMPERMEABILIZACIONES)**

DAVID ELIZONDO PINTURAK
DEKORAZIO ETA INDUSTRIA PINTURA

**KALITATEA
ETA
GARBITASUNA**

**AURREKONTUA
KONPROMEZURIK GABE**



678623866

ZIAURRITZ · argapin@hotmail.com



Comercios
de Navarra
Nafarroako
dendak

Denda txikietan
erosten duzunean,
argiak pizturik
jarraitzen du

